

LABURREAN

BILBO

Jaiotzazaleen Alkarteak bihar zabalduko dau Gabonetako erakusketea

Bihar zabalduko dabe, Bilbo-ko Zazpikaleetako Pausoen Museoan Bizkaiko Jaiotzazaleen Alkarteak eratutako Gabonetarako erakusketea. Alkarte honetako Miguel Ferre lehendakariak esan daue-
nez, «zortzi dioramako erakusketan, Ama Birjinearen deikundea, Errege Magoen karabanea eta Jesusen jaiotzea ikusi ahal izango dira».

DURANGO

50 erakusleku izango ditu Euskal Denda artisautza azokeak

Eguenean inaugurauko daben Euskal Denda Durango-ko artisautza azokan 50 erakusleku baino gehiago izango dira ikusteko. Tontxu Campos Sustapen Ekonomikorako diputauak aurreratu dauenaren arabera, 1.600 metro koadro hartuko dituan azokeak «etenbako garape-na eta hazkundea izan dau».

KULTUREA

Guggenheimeko beharginek grebea egingo dabe, eguenean

Guggenheim Museoko emakume langileek datorren eguenako greba deialdia mantenduko dabe. Eulen azpikontrautako enpreseak kanporatutako lau langileak barriro ez hartzeak eragin dau grebea.



JOSU ETXEBARRIOSTE

PRODUKTU ESKAINTZA OPAROA. Bio-Bio dendan erosi leitekezan produktuek ez dabe tratamendu kimikorik jasan, pestizidek edo fitohormonek eragin leikiezan arriskuetatik kanpo dagoz.

Hasier Rekondo | BILBO

Begoña Goikoetxea Lezamatik etorri da Bilbo-ra margo ekologikoak eroatera beren beregi. «Etxeko hormak margotu behar ditut, berton saltzen dituenak ez dirala toxikoak esan deuste». Lehenengoz sartu da Elkano kaleko Bio-Bio denda ekologikoan, baina era honetako produktuak erosten ohituta dago. «Produktu ekologikoak karuagoak diran arren, merezi dau erostea naturalagoak diralako, lantzean behin etorten nazanez ez deustat salneurriari begiratzen».

Naturea esku-eskura, Bilbo erdian

DENDA EKOLOGIKOA. 1.500 produktu biologiko eta natural saltzen ditue Bilbon zabaldu daben lehengo supermerkatu ekologikoan, Bio-Bio-n


Merino anaiek Bilbo erdian zabaldu daben supermerkatu ekologikoan, era naturalean ekoiztutako produktuen eskaintza oparoa aurkitu leiteke: fruta eta barazki freskoak, esnea, ogia, lehen presinoko olioak hotzean, hanburgesak, eta abar. Produktuok ez dabe tratamendu kimiko, pestizida eta fitohormonekin tratau.

Angel Merino dendari arrunta baino zeozer gehiago da, «bezero gehienak informazio eske dotoz, dendaria baino gehiago aholkularia naz askotan». Ondo baino hobeto ezagutu behar ditu produktuen berezitasunak. «Etiketeka datak zaindu behar dira, produktuok ez daukielako kontserbagarritik. Bezeroak gehiago ordaindu behar badau, informazioa eskatzen dau, mila galdera erantzuteko gai izan behar zara dendan».

Okindegi ekologikoa

Jose Antonio Maella bilbotarra orosten dau Bio-Bion, astelehen, eguazten eta bari-
kuetan. «Ogiaren kalidadeak erakarten nau, ez dauka zerikusirik ogi arruntarekin. Ogiaz gainera, ezti ekologikoa edo tomate biologikoak erosten ditut. Karutxoagoak izan arren, bako-
txaren osasunak eskertu egiten dau», zehazten dau Maellak.

Bio-Bio dendako 150 metro koadroetan 1.500 produktu ipini ditue salgai. Jente asko harri filosofalaren bila sartzen dan arren, Merinok argi dauka ez dauela produktu magikorik. «Dietetika arloan, merkatuan dagozanen arteko aurkeraketa serioa egiten dogu: bitamina eta pilula magikoen bila datoza-nei janari ekologikoen menua aholkatzen deustegu».



EGUNKARIAK GONBIDATZEN ZAITU

Topaguneak Udagoieneko osterara dela eta antolatutako ondorengo ekitaldietarako sarrerak ditugu:

- Zornotza Aretoan, abenduaren 5ean, gaueko 21:00etan Oreka TX.
- Durangoko San Agustin Aretoan, abenduaren 6an, gaueko 21:30ean Txuma Murugarren.

Bidali zure datuak **zozketa@egunkaria.com**-era edo deitu **943 300 222** telefonora.